

7. MAILA (GAITASUN MAILA)

HELBURUAK

Lau komunikazio gaitasun oinarrikoen helburu komunak

- Ikasleek ikasten duten hizkuntzan erraz komunikatzea, bai ohiko egoeretan eta bai egoera berezi eta zailagoetan ere, esparru pribatuan zein publikoan, lanbidean eta hezkuntzan. Beraz, mintzatu eta idazteko jariora eta sormena behar dute, eta egituraren eta kontzeptuen aldetik konplexuak diren testu idatziak eta ahozkoak ulertzeko gaitasuna.
- Ideia nagusiak ulertzea eta berariazko informazioa ateratzea askotariko ahozko eta idatzizko testuetatik, ikasten duten hizkuntzaren aldaera hedatuenetan, estilo ezberdintasunak antzemateko sena erakutsiz eta, ahozko komunikazioan, benetako testuinguruaren zailtasunak gaindituz.
- Mintzakideen jarrerak, gogo aldarteak eta asmoa eta haien arteko harremanak ulertzea.
- Ahozko eta idatzizko testu mota bakoitzaren xedea eta funtzioa antzematea.
- Hainbat egoera ezberdinetan berehala eta egoki erreakzionatzea.
- Komunikazio estrategiak eraginkortasunez erabiltzea, bai hizkuntzazkoak eta bai bestelakoak.
- Lexikoa eta egiturak gai jakin baten eta komunikazio egoera baten arabera moldatzea.
- Ahozko eta idatzizko kodeen diferentziei antzematea, eta bai ikasten duten hizkuntzaren erregistro eta aldaerei ere.
- Kasuko hizkuntza egiten den herrialdeetako gizartea eta kultura ahalik ongien ezagutzea, hizkuntza hobeki ulertzeko eta komunikazioa aberasteko.
- Oinarriak ezartzea hizkuntza norbere kabuz ikasten jarraitzeko, baita beste hizkuntza batzuk ikasteko ere, behin ziklo honetako ikasketak amaiturik.

Lau komunikazio trebetasun oinarrikoen helburu berariazkoak

- **Irakurmena**
 - Ideia orokorra ulertzea, alderdi nagusiak eta garrantzizko xehetasunak bereiztea hainbat motatako testuetan, gaia konkretua izan nahiz abstraktua.
 - Iritzi eta jarrerari antzematea, bai eta haien egilearen asmoari eta aldartei ere.
 - Ideiak eta informazioa ateratzea egitura konplexuko testuetatik, kultur erreferentziak eta maiz erabiltzen diren esapide idiomatikoak izaten dituzten horietatik.
 - Idatzizko testu edo agiri bat zein motatakoa den eta zer funtzio duen jakitea.
 - Irakurtzeko modu ezberdinetara moldatzen jakitea: irakurketa osoa, selektiboa, estentsiboa, interpretaziozkoa.
- **Entzumena**
 - Ahoz ematen diren hainbat motatako testuen esanahi orokorra, alderdi nagusiak eta xehetasunak eta mintzatzaren diren iritziak eta jarrerak aski erraz ulertzea, baita oso ongi entzuten ez denean ere, zuzeneko saioetan nahiz emitituetan, testuak ohiko abiaduran ahoskaturik, azentu, erregistro eta estilo estandar ezberdinetan.
 - Gai abstraktu edo konkretuen gaineko informazioa eta testuaren barneko ideiak ateratzea, baldin eta diskurtsoaren egitura argia bada eta gutxitan erabiltzen den esapiderik ez badu.
 - Helburu bat lortzeko jarraibideak ulertzea. Testu baten funtzioa eta mota ezagutzea, bai eta hura ematen duenaren asmoa, jarrera eta aldartea ere.

- **Idazmena**

- Testu argi, ongi egituratu eta egokiak idaztea, helburu eta funtzio ezberdinetarako.
- Ikuspuntuak nahikoa luze azaltzea, ideiak eta informazioa modu koherentean antolatuz, argudio eta adibide aproposak erabiliz eta azalpenari amaiera egokia emanaz.
- Testuaren helbururako eta irakurleentzako estilo eta erregistro egokiak aukeratzea.
- Hizkuntza malgutasun eta eraginkortasunez erabiltzea. Halaber, hiztegi zabala erabiltzea, testuaren lokailu eta markatzaile ugari, eta askotariko egitura eta ñabardurak, kasuan kasuko komunikazio egoerari dagozkionak.

- **Mintzamena**

Ikasleek gaitasun hauek lortu behar dituzte:

- Interes orokorreko gaiei buruz mintzatzeko jariora, bat-batekotasuna eta eraginkortasuna izatea –bai bakarrizketan bai elkarrizketan–; hizkuntzaren baliabideak eta baliabide estrategikoak behar bezala eta eraginkortasunez erabiltzea, eta ahozko komunikaziorako gizarlean ezarrita dauden konbentzioei jarraitzea.
- Egoki erantzun eta erreakzionatzea hainbat egoeratan, hizkuntzaren erabilera emozionala, aipamenezkoa eta umorezkoa baztertu gabe.
- Aktiboki parte hartzea elkarrizketa informaletan, interes orokorreko gai konkretu zein abstraktuak erabiliz. Ikasleak zerbait kontatu edo deskribatu beharko du zehatz-mehatz, bere ideiak azaldu eta bere jarrerak defendatu.
- Eztabaida formaletan informazioa aurkeztea, iritziak azaldu, justifikatu eta defendatzea, hipotesiak adieraztea eta aukerak ebaluatzea.
- Elkarrizketa batean solaskideei eragiteko moduan jardutea, ekinbidea hartuz; eztabaidatzen diren ideiak zabaldu eta garatzea eta egoki aritzea bat-batean, aurrez prestatutako gidoi edo galdetegiaren beharrik izan gabe.
- Askotariko gaiei buruzko iragarki, mezu eta jarraibideak ematea.
- Arazo baten zergatikoa azaltzea, egin beharreko urratsak eztabaidatzea, aukerak alderatu eta erkatzea.
- Hainbat iturritatik jasotako informazio zehatza eta argudioak laburtu eta adieraztea.

EDUKIAK

Prozedura-edukiak

Komunikaziorako estrategiak. *Lau hizkuntza trebetasunei dagozkien prozedurak.*

Egoeraren osagai esanguratsuei *antzematea*, bai ulermena, bai idazmena zein mintzamena erabiliz.

- Egoeraren zer-nolakoei antzematea.
- Elementu paralinguistikoak ezagutzea (fonikoak eta ikonikoak)
- Testuaren funtzioari antzematea (komunikazio funtzioa, adierazpen funtzioa, funtzio konatiboa) haren ezaugarrien arabera.
- **Komunikazio egoerara moldatzea** (zerbait aditzeko edo adierazteko).
 - Entzuketa edo irakurketa mota moldatzea, kontuan izanik zer ulertu asmo duen entzuleak (entzuten ari denean) edo irakurleak (irakurtzen ari denean), eta egoerak zer osagai dituen (testuaren funtzioa).
 - Adierazpen mota moldatzea, kontuan izanik mintzatzeko edo idazten duenaren asmoa eta egoeraren osagaiak (mintzakidea, hitz egiteko txanda, esparrua, adierazpidea...).
 - Inguruabarretara moldatzeko malgutasuna.
- **Testuko osagai esanguratsuak ulertzea.**
 - Ondorioak ateratzea, hipotesiak sortu eta adieraztea, ideietan, aurrekontzeptuetan eta alde zuzeneko ezaugarrietan oinarriturik.

- Loturak, antzekotasunak eta diferentziak bilatzea, elementu esanguratsuak orokortzea.
- Ulertze motak: osoa, hautakorra, zehatza, interpretaziozkoa etab.
- **Adierazpena:** diskurtsoa itxuratu eta artikulatzea hitzezko eta hitzik gabeko osagaiak elkartuz
 - Ideiak antolatu eta sekuentziaztea
 - Kausa-ondorio erlazioak..
 - Diskurtsoa egituratu eta kontrolatzeko gaitasuna, hauek direla bide:
 - ✓ Gaikako antolaketa.
 - ✓ Koherentzia eta batasuna.
 - ✓ Ordena logikoa.
 - ✓ Estiloa eta erregistroa.
 - ✓ Eraginkortasun erretorikoa.

Ahozko adierazpenari dagokionez, aipatu alderdiez gain aintzat hartuko dira honako estrategia hauek:

- Arriskuak saihesteko estrategiak: ordezkapenak, konponketak, atzera egiteak etab.
- Konpentsaziozko estrategiak: itzulinguruak, hurbilketak, keinuak, itzulpenak etab.
- Enuntziatu bat egiteko behar diren osagaiak hautatzea (lexikoa, erregistroa, azentua, tonua etab.).
- Luzamendurako edo denbora irabazteko estrategiak: betegarriak, errepikapenak etab.
- Autokontrolerako estrategiak: esandakoa zuzendu edo beste modu batera esan.
- Elkar-eragiteko estrategiak: laguntza eskatu, etab.
- Elkar laguntzeko estrategiak.
- Esanahiaren negoziatorako estrategiak: ulertu ez dena berriz azaldu edo ulertu denaren laburpena eman.

Hizkuntza ikasteko estrategiak

- **Zeharkakoak**
 - Estrategia metakognitiboak:
 - ✓ Ikas prozesuaz jabetzea.
 - ✓ Norberaren ikas estiloak ezagutzea.
 - ✓ Ikasketa planifikatzen jakitea, ikas prozesuaren ardura izatea, jarrera aktiboa hartzea.
 - ✓ Ikasgelatik kanpo ikasten jarraitzeko baliabideak erabiltzea, ikaskuntzan autonomo izaten ahalegintzea.
 - Estrategia afektiboak:
 - ✓ Norberaren gaitasunean konfiantza izatea eta jarrera baikorra hartzea, huts egiteko beldurra eta lotsa gainditzeko eta jokabide kritikoa garatzeko.
 - Estrategia sozialak:
 - ✓ Arreta eta lankidetzat bultzatu eta garatzea.
- **Zuzenak**
 - Buruz ikasteko teknikak:
 - ✓ Testu, esaldi, multzo semantiko, errima eta abarren barnean buru-erlazioak sortzea.
 - ✓ Ikusitakoak eta entzundakoak lotzea.
 - ✓ Zenbait teknika baliatzea (aldi-roko berrikustekak, zerrendak, sailkapenak).
 - Estrategia kognitiboak:
 - ✓ Informazio berria aurretik jasotakoarekin lotzea
 - ✓ Gertaerak behatu eta hipotesiak egitea.
 - ✓ Dedukziozko arrazoibideak garatzea.
 - ✓ Komunikazioaren eta hizkuntzaren arteko loturaz gogoeta egitea (komunikazio-ekintza, eta komunikazio egoeraren osagaiak).

- ✓ Ulertze inductiboa eta osoa lortzea, ikasten ari den hizkuntza erabiltzeko sistemen eta arauen dedukzioaren bitartez, testuinguruan jarritako testuetatik abiatu, edo norberaren hizkuntzarekiko analogiaz.
- ✓ Behatutako arauak orokortzea.
- ✓ Ikasten ari den hizkuntzaren ezaugarriak eta ama-hizkuntzaren erkatzea.
- ✓ Norberaren oharrak idaztea, laburpenak egitea eta norberaren gramatika antolatzea.
- Ebakera eta intonazioko teknikak erabiltzea:
 - ✓ Jatorrizko itunak imitatzea edo testu adierazgarriak (kantak, olerkiak, esaldi zailak...) buruz ikasi eta maiz errepikatzea.

Kontzeptu-edukiak

Goi Zikloan honako mintza, funtzio eta egintzetan sakonduko da zehaztasun eta ñabardura maila handiagoa lortzeko eta aldi berean zuzentasuna eta komunikazioaren helbururako moldapena areagotzeko:

Gizarte erabilera

- Agurtzea, despeditzea, interpelazioak eta aurkezpenak.
- Esker ona adieraztea.
- Norbaitez galdetzea.
- Zorionak ematea.
- Barkatzeko eskatzea.
- Konplimenduak egitea.
- Dolumina agertzea.
- Gonbitak egitea, onartzea eta errefusatzea.

Informazioa eskatzea eta ematea

- Pertsonen eta gauzen gaineko informazioa eskatu eta ematea; ordutegiak, datak eta tokiak; gertaerak, prozesuak, jardura eta egintzak.
- Inori zerbait badakien galdetzea eta gauza bat dakizun ala ez adieraztea, edo jakitea nondik heldu zaizun.
- Gauza bat egia den ala ez galdetu eta baieztatzea.

Deskripzioa eta kontaketa

- Pertsonak, gorputzaren eta gogoaren egoerak, objektuak eta haien erabilerak, sentimenduak, prozesuak, aldaketak eta sistemak, bidaiak eta tokiak deskribatzea.
- Ezaugarriei buruzko iruzkinak egitea.
- Lehengo, oraingo eta geroko gertaera bat kontaketa.

Aurreikuspenak, asmoak, xedeak eta hipotesiak

- Pertsonen, gauzen, lehengo eta geroko gertaeren gainean hipotesiak egitea.
- Gogoeta egin eta ondorioak ateratzea.
- Ekintzen xedea adieraztea.

Iritziak eta balorazioak

- Interesa edo interes falta adieraztea.
- Gustuak eta zer nahiago den adieraztea.
- Denetariko arte adierazpenak baloratzea.
- Ados zauden ala ez adieraztea.
- Iritziak eskatu eta ematea.
- Iritzi edo ikuspuntu bat arrazoitu eta argudiatzea.
- Uste bat adieraztea.
- Zehaztasunez alderatu eta erkatzea.
- Duda adieraztea.
- Eszeptizismoa adieraztea.
- Ziurtasun gradu ezberdinak adieraztea.

- Gertaera bat nolakoa den adieraztea: itxurazkoa, egi-antzekoa, litekeena edo ezinezkoa, gertakorra edo gertagaitza, erraza ala zaila, beste baten ondorio logikoz, beharrezkoa ala behar gabea, nahitaezkoa ala ez nahitaezkoa, debekatua, auskalokoa.

Sentimenduak, jarrerak eta aldarreak

- Gogo aldarte bat eta haren arrazoiak adieraztea: satisfazioa edo insatisfazioa, mirespena, estimua, poza edo tristezia, esker ona, konfiantza, konfiantza falta, beldurra, asperdura, larrimina, indiferentzia eta haserrea.
- Gorputz edo osasun aldarte bat adieraztea.
- Gurari bat adieraztea.
- Damua adieraztea.
- Portaerak kritikatzeko.
- Barkazioa eskatu eta barkatzea.
- Erasiak eta kexak egitea.

Ekintzarako asmoak (*funtzio pertsuasiboa edo inductiboa*):

- Norbaitek zerbait egiteko asmoa, xedea ala erabakia hartu duen galdetzea.
- Zerbait egiteko asmoa, xedea eta erabakia hartu duela adieraztea.
- Promesak egitea.
- Jarraibideak eskatu eta ematea.
- Ekintza konkretu bat mesede gisa, premia gisa edo obligazio gisa eskatzea.
- Laguntza eskatu eta eskaintzea.
- Zerbait egitea eskaini edo uko egitea.
- Zerbait egiteko baimena eskatu, eman ala ukatzea.
- Zuzen nahiz zeharbidez aginduak ematea.
- Debekatzea.
- Norbaiti zerbait egiteko obligazioa kentzea.
- Erreklamazioak egitea.
- Zerbait egin nahi den galdetzea.
- Norbaitek zerbait egin dezan nahia adieraztea.
- Kontseiluak eskatu eta ematea.
- Ekintza bat proposatu, iradoki edo gomendatzea.
- Limurtzea.
- Abisuak, gaztiguak eman edo ernaraztea.
- Mehatxatu eta ikaratzea.
- Zerbait egitera bultzatzea.
- Hitzordu bat hartzea. Norbaitekin hitzordua jartzea.

Diskurtsoaren antolamendua

- Gai baten hasiera iragartzea.
- Diskurtsoan tarteki hitzak sartzea (luzamendurako, pentsatzeko beta izateko).
- Digresio baten hasiera markatzea.
- Aurrera segitzea.
- Norbere burua zuzentzea, lehengoa ukatzea, duda egitea.
- Enfasia adieraztea.
- Zehaztea eta ñabartzea.
- Adibideak ematea.
- Gaia aldatzea.
- Gogora ekartzea, aipatzea eta zeharkako aipamenak egitea.
- Definizioak ematea.
- Azalpen batean gauzak banan-banan aipatzea.
- Denbora sekuentzia bat adieraztea.
- Laburpena egitea.
- Grafikoak, taulak eta estatistikak interpretatzea.
- Txostenak egitea.
- Diskurtsoan ideiak eta kontzeptuak lotzea.
- Bukaeraren hasiera eta ondorioa markatzea.
- Ahozko diskurtsoaren konbentzioak: hitza eskatu eta ematea, etetea, hitz egiten uztea.

- Telefonoz hitz egiteko oinarritzko konbentzioak (komunikazioa nola hasi, norbaitez nola galdetu, mintzakideari itxoiteko eskatu, ongi aditu ala ulertzen den baieztatu, adio esatea).
- Kartak idazteko konbentzio oinarritzkoak (hasierako formulak, trataerakoak, ondorioa).

Komunikazioari nola eutsi eta kontrolatu

- Norbaiti zerbait errepikatzeke edo mantsoago hitz egiteko eskatzea.
- Hitz edo esapide batek zer esan nahi duen edo nola itzultzen den galdetu eta adieraztea.
- Hitz edo esapide bat nola esan edo nola idazten den galdetu eta adieraztea.
- Mezu bat ulertu den ala ez galdetzea.
- Egiaztatzea norbaitek guk ulertu uste izan duguna benetan esan duen.
- Ulertu dugula baieztatzea edo aurrera segitzeko adieraztea.
- Enuntziatu bat edo hitzunak duen asmoa argitzea.
- Parafraziak egitea.
- Bozaren modulazioak eskatzea: ozenago edo apalago mintzatzeko.

Eduki formalak

- **Perpausa**
 - Perpaus motak (esanahiaren arabera).
 - ✓ Adierazpen perpausak
 - Baiezkoak: *Asko gustatu zait azken liburua.*
 - Ezezkoak: *Ez dut sekula horrelakorik ikusi.*
 - ✓ Galdera perpausak: *Noiz bukatuko dugu partida?*
 - ✓ Aginte perpausak: *Ez zaitez berriro hemen agertu.*
 - ✓ Harridura perpausak:
 - Bai: *Bai ausarta dela umea!; zuk bai jan!*
 - Erakusleak.: *Hau zorte txarra!; polit hori!; ganorabakoa halakoa!*
 - Ze(r) / Zein: *Ze eguraldi ederra dagoen gaur!; gozo zer dago!; okerra zer da, ba!*
 - Nolako / Zelako: *Nolako imajinazioa daukazu!*
 - Ordena: *Ederra kontua!*
 - Genitiboa: *Gauaren iluna!*
 - Perpausaren egitura: Galdegaia eta elementuen ordena.
 - ✓ Ordena ez-markatua:
 - *Goizean, alkateak prentsaurreko bat eman du.*
 - *Bihar mendira joango gara.*
 - ✓ Ordena markatuak:
 - Izena: *Aurreko ikasleak erantzun du ondo.*
 - Izenordaina: *Zeuk egingo duzu orain.*
 - Erakuslea: *Horixe da galduta zegoen liburua.*
 - Adberbioa: *Hementxe zeuden poltsak.*
 - Aditza: *Lapurte egin dizkigute poltsak.*
 - Baiezkotasuna: *Badator autobusa; Heldu dira gure opariak.*
- **Perpaus bakuna: izen sintagma**
 - Izena
 - ✓ Izen bakunak: *Etxea, haragia,...*
 - ✓ Izen eratorriak: atzikiak eta aurrizkiak
 - ✓ Izen elkartuak: *Arrain zopa, seme-alabak, txori kaiola,..*
 - Izenordainak
 - ✓ Pertsona izenordain arruntak: Ni, hi, gu, zu, zuek.
 - ✓ Pertsona izenordain indartuak: Neu, heu, geu, zeu, zeuek.
 - ✓ Izenordain zehaztugabeak:
 - Galdetzailak: Nor, zer, nortzuk, zertzuk.

- Galdetzaileetatik eratorritako izenordainak:
- Beste ... bat/batzuk; beste nor/inor

Nor	Inor	norbait	edonor
		nor edo nor	nornahi
Zer	Ezer	zerbait	edozer
		zer edo zer, zeozer	zernahi
Zein		zenbait	edozein
		zein edo zein	zeinahi

- ✓ Bihurkariak: *Jonen anaiak bere **burua** hil du.*
- ✓ Elkarkariak: *Josuk eta Mirenek **elkar** maite dute; **Bata** bestearen atzetik etorri dira.*
- Determinatzaileak
 - ✓ Mugatzaileak:
 - Artikulua:
 - ❖ Artikulu zehaztua: -a, -ak
 - ❖ Artikulu zehaztugabea: bat, batzuk
 - Erakusleak:
 - ❖ Erakusle arruntak:

Hau - hauek	(hau - honeek)
Hori - horiek	(hori - horreek)
hura - haiek	(ha - hareek)
 - ❖ Erakusle indartuak:

Hauxe hauexek	(hauxe honeexek)
Horixe horiexek	(horixe horreexek)
huraxe haiexek	(haxe hareexek)
 - ❖ Erakusle (izenordain) indartuak:

berau	eurok
berori	eurok
bera	eurak
 - ❖ Zenbatzaileak:
 - Zenbatzaile zehaztuak:
 - Kardinalak (*zenbakiak*)
 - Ordinalak: *Lehenen(go)/-garren*
 - Zatikiak: *Erdia, herena, laurdena.*
 - Ehunekoak: *Gasolina ehuneko bost . (%5) igo da*
 - Banatzzaileak: *Bana, bosna/ bakoitza-bakoitzeko.*
 - Zenbait esapide: *Bizpahiru, hogeit bat / hogeiren bat, baten bat, ehun inguru, gutxi gorabehera, milatik gora, hamarretik hogeira bitartean, milaka;...*
 - Zenbatzaile zehaztugabeak: *Zenbat, batzuk, zenbait, asko, gutxi, honenbeste, hainbat, ugari, dezente, nahiko(a), aski, pilo bat, makina bat, mordoak, apur bat, pixka bat;..*
 - Zenbatzaile orokorrak: *Dena, guztia, oso, bete.*
- Izenondoak.
 - ✓ Graduatzaileak:
 - Superlatibo absolutua: *Libururik politena erosi dute.*
 - Izenondo konparatiboak: *Etxe handiagoa behar dut.*
 - Neurritz gorako kalitateak: *Etxe hori handiegia da, lar handia da.*

- ✓ Izenlagunak.
 - -en atzikia: *Non utzi dituzu umeen jertseak?*
 - -ko atzikia:
 - ❖ Izen sintagma + -ko
 - Izena + -ko: *Anjelez fida zaitetzke, berbako gizona da eta.*
 - Izena + izenondoa + -ko: *Indar handiko pertsona da.*
 - Zenbatzailea + -ko: *Lau hankako mahaia.*
 - Zenbatzaile zehaztuak: *Bi urteko semea daukat.*
 - Zenbatzaile zehaztugabeak: *Josu hitz gutxiko gizona da.*
 - Zenbatzaile orokorrak: *Urte osoko soldata gastatu du auto berrian.*
 - Zenbat/zenbateko: *Zenbateko interesa ematen dizute?*
 - ❖ Adberbioa + -ko:
 - Nola/nolako
 - Aditzondoak: *Sekulako, Egundoko, Betiko.*
 - Deklinabide-kasuak: *Nongo, norako.*
 - ZerezKO: *Plastikozko botilak kristalezkoak baino merkeagoak dira.*
 - Posposizioak: *Bakearen aldeko manifestazioa dago.*
 - Zeri buruzko: *Tibeteko kolonizazioari buruzko erreportajea eman dute.*
- Aposizioa
 - ✓ Aposizio ez-murrizgarriak
 - *Bilbo, Bizkaiko hiriburua, asko aldatzen ari da.*
 - *Amaia, nirekin lan egiten duena, gaixorik dago.*
 - ✓ Aposizio murrizgarriak
 - *Osaba lñaki etorri da.*
 - *Lasa andreak deitu du zutaz galdezka.*
 - *Txirrita bertsolari handiak kantatu zuen bezala.*
 - *Gorbeia mendian gurutze handi bat dago.*
 - ✓ Adberbioa.
 - Aditzondoak.
 - ❖ Aditzondoaren sailkapen formala
 - Aditzondo bakunak: *Sarri, agudo, iaz, urrun, gertu, aspaldi,...*
 - Aditzondo eratorriak
 - ki: *Poliki, automatikoki, laburki,...*
 - ik: *Pozik, bizirik, hutsik, zutik,...*
 - ro: *Berriro, astiro, zeharo, geldiro,...*
 - to: *Polito, ederto, hobeto, txarto,...*
 - ka: *Presaka, korrika, saltoka, zarataka,....*
 - Esaera adberbialak: *Gutxi-gorabehera, noizik behin, batez ere,...*
 - ❖ Aditzondoaren sailkapen semantikoa

Denborazkoak	Lekuzkoak	Moduzkoak	Mailazkoak	Iritzizkoak
<i>agudo, antzina, arin, aspaldi, lehenik, oraindik, jadanik, edonoiz, inoiz,...</i>	<i>edonon, nonahi, hortik, hona, hurbil, urrun, gertu, pikutan, hemen, han,...</i>	<i>Egiazki, apurka, oinutsik, alferrik, ados, kili-kolo, primeran, bizkor, itsu-itsuan, hala</i>	<i>oso, sano, ozta-ozta, ia-ia, nahikoa, guztiz, batere, samar, aski, izugarri,</i>	<i>ustez, jakina, noski, agian, beharbada, dirudienez, antza, itxuraz,...</i>

- Posposizioak:
 - ❖ Noren

alde(an)	Arabera	arte(an)	aurka / kontra
aurrean	atzean / ostean	Azpian	barruan / barnean
beharrean	bidez / bitartez	Esku	gainean
inguruan	kontu / kabuz	Menpe(an)	ondoan / alboan
ordez	Parean	Partez	truk(e)

- ❖ Zer(ik)

gabe (barik)	Faltan
	...

- ❖ Zerez

gain(era)	bestalde(an) ...
-----------	------------------

- ❖ Nori

buruz	Esker...
-------	----------

- ❖ Nondik

Kanpo	Zehar...
-------	----------

- ❖ Non

zehar	Gora	Behera	Barrena...
-------	------	--------	------------

- ❖ Posposizio antzeko aditz lokuzioak

begira	Bila	Eske	Zain...
--------	------	------	---------

- Deklinabidea

- ✓ Nor (Absolutiboa)
- ✓ Nork (Ergatiboa)
- ✓ Nori (Datiboa)
- ✓ Non (Inesiboa)
- ✓ Nondik (Ablatiboa)
- ✓ Nora (Adlatiboa)
- ✓ Nongo (Leku-denbora genitiboa)
- ✓ Norako (Adlatibo destinatiboa)
- ✓ Norantz (Hurbiltze adlatiboa)
- ✓ Noraino (Muga adlatiboa)
- ✓ Norengan (Bizidunen inesiboa)
- ✓ Norengandik (Bizidunen ablatiboa)
- ✓ Norengana (Bizidunen adlatiboa)
- ✓ Norenganantz (Bizidunen hurbiltze adlatiboa)
- ✓ Norenganaino (Bizidunen muga adlatiboa)
- ✓ Noren (Genitiboa)
- ✓ Norentzat (Destinatiboa)
- ✓ Norekin (Soziatiboa)
- ✓ Norengatik (Motibatiboa)
- ✓ Zerik (Partitiboa)
- ✓ Zerez (Instrumentala)
- ✓ Zertzat (Prolatiboa)
- ✓ Norentzako (Destinatibo berdeklinatua)
- ✓ Norekiko (Soziatibo berdeklinatua)
- ✓ Norenganako (Bizidunen adlatibo berdeklinatua)
- ✓ Norainoko (Muga adlatibo berdeklinatua)

- **Perpaus bakuna: aditz sintagma**

- Aditz motak.
 - ✓ Aditz bakunak: *Etorri, haserretu, kontzientziatu,...*
 - ✓ Aditz lokuzioak:
 - Izan aditzak: *Ahal, ezin, nahi, behar, balio, bizi, merezi,...* izan.
 - Egin aditzak: *Hitz, lo, lan, amets, oihu, barre, negar,...* egin.
 - Hartu aditzak: *Kontuan, hitza, parte, begitan hartu,...* hartu.
 - Eman aditzak: *Kontu, hitza, denbora, amore, musu,...* eman.
 - Erabili aditzak: *Asmoa, buruan, ahoan, autua,...* erabili.
- Aditz kategoriak
 - ✓ Denbora:
 - Orainaldia: *Azterketa gainditu dut eta ospatzen ari naiz, gero egingo diot kasu.*
 - Lehenaldia: *Berandu iritsi nintzen, ama afaltzen ari zen eta aita ohera joatekoa zen.*
 - ✓ Aspektua:
 - Puntukaria: *noa, pentsatzen ari naiz, behar dut.*
 - Burutua: *joan naiz, pentsatu dut, behar izan dut.*
 - Burutugabea: *Joaten naiz, pentsatzen dut, behar izaten dut.*
 - Burutzekoa: *Joango naiz, pentsatuko dut, behar izango dut.*
 - ✓ Modua:
 - Indikatibo (- ahala): *Arratsaldean etorriko naiz.*
 - Indikatibo-Baldintza (+ ahala): *Egingo ez bazenu, hobe.*
 - Ahalera (+ ahala): *Aurten ezin gaitezke joan.*
 - Subjuntiboa (- ahala): *Has gaitezen berriro.*
 - Agintera: *Esadazu zer ikusi duzun.*
 - ✓ Erregimena:
 - NOR eta NORK motako aditzak
 - ❖ NOR erregularrak: *Osaba hil da.*
 - ❖ NOR-NORK erregularrak: *Osabak katua hil du.*
 - ❖ NOR-(NORK) irregularrak: *Euria egiten du sarri hemen.*
 - ❖ (NOR)-NORK irregularrak: *Horrek tipo argia dirudi.*
 - NORIdun aditzak
 - ❖ NOR-NORI erregularrak: *Lagun bat etorri zait bisitan.*
 - ❖ NOR-NORI-NORK erregularrak: *Aitak amari gona gorria ekarri.*
 - ❖ (NOR)-NORI-NORK irregularrak: *Gauean deituko dizut.*
 - Inpertsionala:
 - ❖ *Herri honetan gutxi irakurtzen da.*
 - ❖ *Pobreoi ez zaigu kasu handirik egiten.*
 - ❖ *Pobreoi ez digute kasu handirik egiten.*
 - Arazleak:
 - ❖ *Autoa hemendik kenARAZI didate.*
 - ❖ *Hori egiTEN BEHARTU naute.*
 - ❖ *Barre ERAGIN dizut ala?*
 - Partikula modalak.
 - ❖ *Al: Ausartuko al zara?*
 - ❖ *Ote/ete: Nola konpondu behar ote dugu?*
 - ❖ *Ei/Omen: Aspaldian asmatu omen zuten.*
 - ❖ *Ohi: Udetan etorri ohi dira herrira.*
- Aditz jokatuabeak
 - ✓ Partizipioa
 - *-Ø: Etxe alokatu batean bizi gara*
 - *-ta: Erdi bukatuta daukat lana, guztiz bukatuta ariketak.*
 - *-ik: Animaturik ikusten zaitut gaur.*
 - ✓ Nominalizazioa
 - *-tea: Garaiz heltzea detaile polita da.*
 - *-teak: Txintxoarena egiteak ez dizu zigorra arinduko.*
 - *-terik: Ez dago zurekin patxadaz hitz egiterik.*

✓ Perifrasi multzoak

-TEA	-TEN	-TEN /-TERA	-TEKO	-TEARI
gustatu pentsatu erabaki ahaztu ... izan, ... egon	jakin, ikasi irakatsi, hasi lagundu utzi egon, ibili...	behartu ausartu animatu gonbidatu zigortu	prest egon asmoa izan gogoia izan gai izan lotsa izan	utzi ekin iritzi eman

✓ Gerundioa

- *-ten: Poteak hartzen ikusi nuen azkenengoz.*
- *-z: Behar denean galdetuz ez da erraza galtzea.*
- *-ta: Gezurra esanda ezin naiz trankil geratu.*
- *-la: Madriletak gentozela istripu bat eduki genuen/Eskuak poltsikoan dituela ibiltzen da hori.*

○ Aditz jokatuak.

- ✓ Aditz laguntzailea.
- ✓ Aditz trinkoak.
 - Indikatiboa: orain
 - ❖ Nor
 - Egon
 - Etorri
 - Joan
 - Ibili
 - Etzan
 - ❖ Nor-nori
 - Egon
 - Etorri
 - Joan
 - Ibili
 - Jario
 - Indikatiboa: iragana
 - ❖ Nor
 - Egon
 - Etorri
 - Joan
 - Ibili
 - ❖ Nor-nori
 - Egon
 - Etorri
 - Joan
 - Ibili
 - Indikatiboa: baldintza
 - Egon
 - Etorri
 - Joan
 - Ibili
 - Inperatiboa
 - Egon
 - Etorri
 - Joan
 - Ibili
 - Indikatiboa: orain/iragana
 - ❖ Nor-nork
 - Eduki
 - Ekarri
 - Eraman
 - Erabili
 - Jakin
 - Esan

- Irudi
- Iraun
- Eroan
- Jardun
- ❖ Nor-nori-nork
 - Eduki
 - Ekarri
 - Eraman
 - Erabili
 - Esan
 - Iritzi
- Inperatiboa
 - ❖ Nor-nork
 - ❖ Nor-nori-nork
- ✓ Adizki alokutiboak.

• **Perpaus elkartua**

- Juntadura eta alborakuntza

<i>Emendioa</i>	<i>Hautakaritza</i>	<i>Aurkaritza</i>
eta ez ..., ez... bai ..., bai... ... ez ezik ... ere / ez eze bakarrik ez..., ... ere -la ..., -la ... hala ..., nola ...	edo ala edota (nahiz) nahiz (zein) zein edo..., edo... ala..., ala...	baina baizik baino ezpada baina izan ezik beharrean barik alde batetik..., bestetik...

Adibideak:

- *Bulegora heldu da ETA lanean hasi da.*
- *EZ du lanik egiten, EZ besteoi lan egiten uzten.*
- *BAI ikastolan, BAI etxean, oso zintzoa izaten da.*
- *Miren EZ EZIK beste guztiak ERE etorri egin dira.*
- *Miren BAKARRIK EZ, beste guztiak ERE etorri egin dira.*
- *Zazpi EDO zortzi lagunek deitu dute.*
- *Nola joango zara, autoz ALA hegazkinez?*
- *Hau NAHIZ bestea, berdin dit.*
- *ZEIN gaur, ZEIN bihar joan, berdin-berdin dio.*
- *Zuk ondo jokutzen duzu, BAINA nik hobeto.*
- *Ez dago etxean, bulegoan BAIZIK.*
- *Ez dut zugatik egin, Amaiatatik BAINO.*
- *ALDE BATETIK interesatzen zaigu, BESTETIK garestiegia da.*

• **Menderakuntza**

- ✓ Konpletiboak

Aditz jokatua	Aditz jokatu gabea
-la	-t(z)ea
-na	-t(z)eko
-nik	-t(z)erik
-n	baietz
-lako	ezetz
-lakoan, -la-eta	galdetzailea
-lakotzat	

Adibideak:

- *Ezagutzen duduLA uste dut, bai.*

- *BAdakit txarto dagoena, baina berdin dit.*
- *Ez pentsa hain erraza denik.*
- *Ohea egin dezazueN nahi dugu gurasook.*
- *Ez dakigu nora joango diren.*
- *Ez dakit NORI GALDETU.*
- *Ezetz jan! Gehiegi ez hurbiltZEKO esan digute, arriskutsua omen da eta.*

✓ Erlatibozkoak

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea
-n	-tako
-neko	-iko
ZEHAR GALDERA	-ko

Adibideak:

- *Atzo ikusi genuen mutilak istripu bat izan du.*
- *Orain arte eginDAKOak ez du ezertarako balio.*
- *Hori berak asmatuko da.*
- *Ondo zaudeteN seinalea da hemen azaltzea.*
- *Ezin ahaz dezaket itotzekotan izan nintzenEKO hura.*
- *Gerizpea non dagoen, hantxe geratuko gara*
- *Umeak etxean zer ikusi, huraxe ikasten du.*

✓ Denborazkoak

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea	
-nean	Aurretik	-tear
-la(rik)	Arte	-teko
-netik	Ondoren	-teaz batera
-nerako	Bitartean	Eta atoan
-nez gero	Artean	-tean
-n artean	Ostean	-terakoan
-n bitartean	Aitzin	-takoan
-n bakoitzean	Orduko	-terako
-n orduan	Baino lehenago	
-n guztietan	Bezain laster	
-n momentuan	Eta laster	
-ino	Eta gero	
Harik eta ...-n arte		

Adibideak:

- *Ama ikusten dueneAN, poz-pozik jartzen da.*
- *Iturrira gindoazeLA, Bartolo ikusi genuen.*
- *Istripua izan zueNETIK, ez da lehengoa.*
- *Gu heldu gineNERAKO, ez zen inor geratzen.*
- *Hik harrikoa egiten duan BITARTEAN, nik kafea egingo diat.*
- *Saiatzen naizen BAKOITZEAN, txarto ateratzen zait.*
- *Ni atera naizen MOMENTUAN, bera sartu egin da.*
- *Zurekin hitz egiten dudan GUZTIETAN, zerbait apurtzen duzu.*
- *Etorri AURRETIK, telefonoz deitu, badaezpada ere.*
- *Egin ORDUKO, ondo aztertu behar dugu.*
- *Ezer egin BAINO LEHEN(AGO), ondo pentsatu.*
- *Josu etorri ARTE ezin gara hemendik mugitu.*
- *Afaldu ONDOREN alde zaharrera joan ginen.*
- *Jakin BEZAIN LASTER etorri naiz.*
- *Hura etorri ETA GERO gertatu ziren komeriak.*
- *Argia pizTEAN jaso dut deskarga.*
- *OrdainTZERAKOAN, poltsa ostu diotela konturatu da.*
- *Atea itxiTAKOAN konturatu nintzen giltzak barruan zeudela.*
- *Ikasketak amaitu nitueNEZ GERO ez naiz hara itzuli.*
- *Ezer apurtzen ez duteN ARTEAN, utziezu jolasten.*

- Zurekin hitz egiten duduN GUZTIETAN, gauza bera esaten didazu.
- Denbora duguino, ez dugu etsiko.
- Zuk ez esan ezer, HARIK ETA irakasleak galdetu ARTE.
- Zer egingo duzu bazkaldu OSTEAN?
- Afal AITZINEAN mintzatu ziren luzaro.
- Lana amaitu BEZAIN AZKAR alde egin du.
- Ikusi BEZAIN AGUDO konturatu zen txarto zegoela.
- Partidua hasi ETA SEGITUAN lortu zuten lehenengo gola.
- Azterketa hasi ETA BEREHALA alde egin zuen klasetik.
- Utzi zenidan liburua amaitZEAR daukat.
- Ez puztu gehiago, leherTZEKO ZORIAN dago eta.
- Zuzendaria agerTZEAZ BATERA, denak isildu ziren.

✓ Moduzkoak

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea
-n legez/bezala	-teko moduan
-n lako/bezalakoa	ahala
-n moduan/modukoa	-tako/-ko moduan
-nez	
-n eran/gisan/antzera	<i>Ikus gerundioa</i>
-n neurrian/heinean/ginoan	
Ba- bezala/legez	

Adibideak:

- Egin itzazu nahi duzuN BEZALA.
- Utz ezazu dagoenN MODUAN.
- Aitak esan dueN ERAN egin dut, baina ez da ondo geratu.
- Irakasleak esan zueN LEGEZ egin behar ditugu.
- Neuk ere zuk egin duzuN ANTZERA egin dut.
- Nik gogoratzen duduNEZ, ez zuen ordaindu.
- Zeuk esan BEZALA egin dut.
- Ondoan deritazuN GISAN egin dezakezu.
- Dina aurrera doaN NEURRIAN.
- Dirua biltzen duguN HEINEAN etxea gorantz doa.
- Denok dakizueNEZ, gaurko hitzaldia hitzik gabe doa.
- Denok elkar ezagutuko BAgenu BEZALA ibiltzen gara jolasean.
- Nik dakidala, lehenengo aldia da gure artera datorrena.
- AginduTAKO MODUAN egingo dugu oraingoan.
- Lanean hasTEKO MODUAN hago hi!
- Janez-janez itxarongo dizugu.
- Hor aritu zitzaigun barruan kabitu ezinDA.
- Bota AHALEAN da euria kanpoan.

✓ Konparaziozkoak.

berdintasuna	nagusitasuna	gorengoa
-izen zenbakarriak (Kantitatea) Beste/adina Honenbeste/horrenbeste/hainbeste	-Baino ...-ago -Zenbat eta ...ago/(orduan eta/hainbat eta)...ago -bata baino besteaago -zein baino zeinago	-ahalik eta ...-en -hainbat ...-en -albeit ...-en
-izen zenbakaitzak (kualitatea) Besteko/adinako Honenbesteko/horrenbesteko/hainbesteko		
-Adjetiboak Bezain/besteko Hain/hainbesteko		
-Adberbioak Bestean/bezain		

Adibideak:

- Miren ez da dirudieN BEZAIN gogorra.
- Gure umea zuona besteko bizkorra da
- Hemen inon ez bestean ondo bizi gara
- Txakurretan beste katu dago etxe honetan.
- Hau dirudieN BAINO errazaGOa da.
- Eskatu nioN BAINO diru GEHIAGO eman zidan.
- Berandu etortzen da, zu BEZALA.
- Zu BEZALAKO astokilorik ez dut ezagutzen.
- Gure PatxiK AHALIK ETA LASTERREN egiten ditu lan guztiak.
- AHAL DUDANIK ETA ONDOEN egingo dut lan hau.
- Etor zaitez ALBAIT ARINEN!
- ZENBAT ETA JENDE GEHIAGO etorri, hobe..
- GERO ETA OKERRAGO gabiltza.
- Zuk ez duzu ekarri haiek esan ZUTEN BESTEKO KANTITATERIK.
- Zeuk nahi DUZUN LAIN BURUKOMIN emango dizkizu horrek.
- Horrek ez dauka ZUK ADINAKO Indarrik.
- Elorrion BEZAINBESTE NESKA eder, non ote dago?
- Ez nuen uste HONEN BERANDU etorriko zinenik.
- HAINBESTE LAGUN bildu zen manifestazioan.

✓ Helburuzkoak.

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea
-n	-teko -ten/tera -tearren -teagatik -tekotan -tekotzat

Adibideak:

- Hauek jaTEKO erosi ditut; beste horiek, ordea, izozTEKO.
- Buelta bat egiTERA noa. Bazatoz?
- Zurekin egoTEARREN etorri naiz.
- Edozer emango nuke hori jakiTEAGATIK.
- Ohera ekarriko dizut afaria EZ ZAITEZEN JAIKI.
- Bakoitzak berea ekartzekotan geratu gara.

✓ Kausazkoak

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea
-lako ...eta bait- -nez gero -la eta ze /zeren	-teagatik -tearren

Adibideak:

- Joan deLAKO haserretu da.
- Etxean geratu da, buruko mina zeukan ETA.
- Ezin diot esan, ez BAITakit non dagoen.
- Apurtuta zegoeNEZ GERO, zaramara bota dut.
- Kontuz ez ibilTZEAGATIK apurtu zaizu.
- Zenbat diru ordaindu dizute hau egiTEARREN?
- HORI GUZTIA DELA ETA bertan behera utzi zuten lana.
- Ikasketak DIRELA ETA lana utzi egin zuen..

✓ Baldintzazkoak

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea	Beste batzuk

ba-	-z gero ezik/ezean -tekotan	ba- ere -an ere barik zein
-----	-----------------------------------	-------------------------------------

Adibideak:

- Ikusten **BADUT**, jakinaraziko dizut.
- Gurekin etorriko **BALITZ**, izugarri poztu**KO** GINATEKE.
- Ahal izan**EZ** GERO, etorriko naiz.
- Inora joa**TEKOTAN**, baserrira joan nahi nuke.
- Oraingoan asmatu **EZIK**, ez dut berriro jokatu**KO**.
- Premiarik izan **EZEAN**, hobe da biharko uztea.
- Ez badakizu ere, azaldu egingo dizut.
- Kontuz zer diozun, ama haserretu barik.

✓ Kontzesiboak

Aditz jokatua	Aditz jokatugabea	Beste batzuk
-n arren nahiz eta ...-n ba...ere -la...ere	arren nahiz eta -agatik -ta,-rik ere gabe, barik ere	-na ...-la Gorabehera, goitibeheiti

Adibideak:

- Ordaindu didate**N** ARREN, ez dut egingo.
- NAHIZ ETA dirurik ez daukada**N**, ondo bizi naiz.
- Gaixorik BA**DAGO** ERE, etorri egin behar du.
- Txarto egin ARREN ordaindu egin didate.
- NAHIZ ETA ondo egin, ez zuen lortu.
- Mesedez eskatu**TA** ERE ez dizut emango.
- Begi bakarra DU**E**LA ERE guk baino hobeto ikusten du.
- Itsaso ondoan BIZIZ GERO ERE ez nuke inoiz arrainik jango.
- Diru asko EU**KI**AGATIK ERE atsegina da
- Dioena dioela, zuk ez egin kasurik.
- Huts batzuk gorabehera, nahikoa ondo dago idazlana..

• Testu mailako lotura: lokailuak

Emendiozkoak	Hautakariak	Aurkaritzakoak	Ondoriozkoak	Kausazkoak
ere ere bai, ere ez baita ... ere ezta ... ere gainera bestalde halaber orobat behintzat bederen behinik behin gutxienez	bestela osterantzean gainerakoan gainerontzean ezpabere	Ordea, berriz Ostera, aldiz Aitzitik, baina Bizkitartean Dena dela / den Hala ere Hala eta guztiz ere Haatik, horratik Barren	beraz bada hortaz orduan honenbestez horrenbestez hala halatan	Zeren Zergatik Ze Bada izan ere

• Esamoldeak (besteak beste):

- **abarketa legez** = siku, gogor, "como una alpargata". Okela hau abarketa legez dago.
- **afari legea egin** = gutxi jan afaritan.
- **ahala**; ADITZA + AHALAK = ahal diren guztiak. Eginahalak eginagatik ere ez da sekula lana amaitzen / Esanahalak esanda ere ez du hauxe baino kasu gehiago egiten. / EZIN KONTA AHALA = "más de lo que se puede contar". Umerik etorri zen? Ezin konta ahala.

- **aho zabalik geratu, aho bete hortzekin geratu** = harrituta, “quedar boquiabierto”.
- **aho zabalka egon** = aharrausika egon, aspertuta dagoen seinale. *Gustatu zitzaizula? Denbora guztian aho zabalka egon zinen eta.*
- **aidean: beldurrez aidean** = oso beldurtuta. *Beldurrez aidean egon ginen goizaldean agertu zen arte.*
- **aitaren egin** = “santiguarse”.
- **aitaren batean, aitaren egin orduko** = “en un santiamén”. *Gaurko lapikoekin aitaren baten egiten da jatekoa.*
- **akorduan eduki** = gogoan eduki. *Oraindik akorduan daukat oporretan zer gertatu zitzaigun.*
- **aldetik kendu** = ondolik kendu. *Gau guztian ez genuen aldetik kendu.*
- **aldiak izan** = *Aldiak izaten zituen gure amamak: batzuetan primeran, beste batzuetan guztiz galduta.*
- **aho betean** = “a dos carrillos”. *Han ziharduen mutikoak galletak aho betean jaten.*
- **ahotan ibili** = “ser la comidilla”. *Denen ahotan dabil urlia ezkontzen dela*
- **aparte hartu** = norbait taldetik aldentu, berba egiteko edo. *Neskatila aparte hartu nuen eta gauzak argi esan nizkion.*
- **apatxak eduki** = “ser un manazas”.
- **argi egon** = eguna zabaldua egon. *Gaur, goizeko bostetarako argi zegoen.*
- **arre edo iso egin** = zirt edo zart egin, kale edo bale. *Arre edo iso egiteko sasoia duzu zeuk ere.*
- **arterik hartu ezinik** = artega, urduri.
- **beste berriz** = “otra vez más”.
- **bala-bala ibili, bolo-bolo ibili** = denen ahotan ibili. *Bolo-bolo dabil lñaki Nekanerekin dabilela.*
- **barrua (eduki) behar da** = “hace falta entrañas”. *Barrua behar da hiltegian lan egiteko.*
- **bat behar eta bera ere ez** = bat ere ez, indartuta. *Aurten sagarrak arkua dauka dena. Bat behar eta bera ere ez ona. / Hainbeste perretxiko bildu eta bat behar eta bera ere ez ona.*
- **batean bestean** = nonahi, edozein lekutan, sakabanaturik. *Gauzak batean bestean lagatzen dituzu eta gero ezin topatu.*
- **bateko... besteko...** = “unas veces... otras...”
- **bazkari legea egin** = bazkari arina egin.
- **bazterrak nahastu** = ondo zeuden gauzak hankaz gora jarri; iskanbila, nahasmendua sortu.
- **begia bete** = gustatu.
- **begitakoa izan** = “ser el preferido/la preferida”. *Neu naiz gure amandrearen begitakoa.*
- **begitan hartu** = mania hartu.
- **begiz jo** = aukeratu.
- **beharra** = ADITZA + BEHARRA: zer edo zer egiteko grina. *Hura zen hura jendearen erosi beharra.*
- **beharrez, beharrean; hobe beharrez, on beharrez, hobe beharrean** = “de buena fe”. *Hobe beharrez esan nion ditua utziko niola eta txarto hartu zidan.*
- **direnak eta ez direnak** = izugarriak, sekulakoak. *Txikitan direnak eta ez direnak egiten genituen.*
- **edan txarrekoa izan** = norbaitek mozkor txarra duela, gaiztotu egiten dela adierazteko.
- **edanari eman** = “darse a la bebida”. *Zurrutari eman. Hori aspaldian edanari emanda dago.*
- **ederra(k) hartu** = “recibir (un) golpe(s)” ... eman.
- **ederra sakatu** = ziria sartu, “engañar, tomar el pelo, timar”. *Ederra sakatu zioten hari ere: sekulako ganga egin zuelakoan akzioak merke erosita, eta gero batere balio ez. / Ederra sakatu ziguten Portugalen whiskyarekin.*
- **egitekoren bat egin, egitekoa egin** = barrabaskeriaren bat, gauza desegokiren bat. *Umeak bakarrik itxi dituzu etxean? Egingo dute egitekoren bat / Guk egin dugu egitekoa!*
- **egon: (geldi) egotekoa izan ez** = oso aktiboa izan. *Jesus! Hori ere ez da egotekoa.*
- **egon hadi horretan!** = egon hadi hori pentsatzen. *Orain joanez gero lana gordeko diatela uste duk? Egon hadi horretan.*
- **egonean** = “inmóvil”. *Arratsalde guztia egonean pasatu dugu.*
- **gabonetan gereziak (emango dizkizut)** = eskerrik asko baina ez dizut ezer emango bueltan. *Gabonetan ez dago gereziarik eta ezinezkoa da mesedea itzultzea.*
- **gaitz erdi** = eskerrak eskumari, “mal menor”. *Autoa zeharo izorratu nian, eta gaitz erdi neurea izan balitz.*
- **gaizki esan** = kritikatu. *Aurretik lagun handiak eta atzetik gaizki esan.*
- **galbanak jo** = lan egiteko gogo guztia galdu. *Galbanak jota nago eta ez daukat ezer egiteko gogorik.*

- **gatz – berakatz, ez gatz eta ez berakatz eduki ez, ez gatz eta ez piper eduki ez** = ganora edo grazia gutxi izan. *Zuk ez daukazu ez gatz eta ez berakatz.*
- **gauza dena, gauza ez dena** = balio duena, balio ez duena. *Zuek koadrila handia, baina gauzaeztana gehiena.*
- **gazi-gezan ikusi** = janariak nahikoa gatz duen edo ez ikusi, probatu, dastatu.
- **giro izan ez** = 1. norbait haserre dagoenean bere alboan egotea ez dela atsegina. *Ez zen giro haren aldamenean.* 2. Egoera atsegina ez denean. *Atzo ez zen giro kalera irteten, jendea besterik ez zegoen. / Polizia tiroka hasi zen eta ez zen han giro. / Dirua falta izan zenetik ez da giro gure bulegoan.*
- **gizon ibili/portatu** = “portarse como un hombre, honradamente”. *Igeltseroa azkenean gizon portatu zitzaigun, ez zigun kobratu gainetiko lana.*
- **haginak berdindu** = heldutasunera ailegatu. *Aspaldi berdindu zitzaizkidan niri haginak gauza horiek sinesteko.*
- **hamabostean behin** = “cada dos semanas”.
- **hamaika horrelako** = zenbat horrelako kasu.
- **hanka: lau hankatan** = lau txakurrean, “a cuatro patas”.
- **harra barruan eduki** = kezka handi bat izan. *Uste zuen minbizia zeukala, har hori zeukan barruan sartuta eta ez zen bizi ere.*
- **inoizko denboran** = “alguna vez”. *Inoizko denboran haserretzen bahaiz, pasatuko zaik.*
- **inorako egon ez** = inora joateko moduan egon ez. *Umea izan dute eta ez daude inorako.*
- **inondik inora (ez)** = inola ere ez. *Ezin du inondik inora lanik topatu.*
- **jabe: bere buruaren jabe izan ez** = osasuna dela-eta bere burua zaintzeko gauza izan ez.
- **jai eduki, egon** = “no tener nada que hacer”.
- **jakin: ez dakit zer, badakit nor** = “no sé qué, no sé cuántos”. *Gezurria nintzela, ez dakit zer, badakit nor. / Ez dakit nori, ez dakit zer eta badakit nor pasatu zaiola esan dit.*
- **jakinaren gainean egon, jakinean egon** = “estar al corriente”.
- **jo batera eta jo bestera ibili; jo hona eta jo hara** = noraezean edo galduta ibili. *Basoan galduta ibili ginen, jo batera eta jo bestera. / Jo batera eta jo bestera ibili bai, baina ez nuen denda hori bilatu azkenean.*
- **jo dezagun** = pentsa dezagun. *Jo dezagun inor ez datorrela hitzaldira. Zer egingo dugu?*
- **jo eta pasa** = azkar edo erdipurdika egin gauzak. *Etxeko beharrak jo eta pasa egin dituzu, hautsa ere kendu barik utzi duzu.*
- **justuan, justu-justuan** = gutxiatik. *Justuan harrapatu nuen tren.*
- **justu-justuko berbak** = ezinbesteko hitzak bakarrik. *Elkarrekin gabiltza lanean baina justu-justuko berbak egiten dizkit bakarrik.*
- **kargu hartu** = kontu hartu, norbaiti bere ekintzen erantzukizuna eskatu. *Kargu hartzen etorri ez zait, bada!*
- **kate motzean lotu** = “atar en corto”. *Horrek gizona kate motzean lotuta dauka.*
- **kolpe egin** = heldu, eskua bota. *Golpe horri! / Laster egin genien kolpe ailegatu ziren bandejei.*
- **kolpe zorririk jo ez, kolpe gurutzekorik jo ez** = lan apurrik ere egin ez, zotzik albora egin ez.
- **kontraesku ibili** = “andar contra corriente”. *Gu beti ibiliko gara kontraesku, jaiokeratik daukagu gaitz hori.*
- **kontrako eztairik joan** = okerreko samatik joan, “atragantarse”.
- **kontu hartu, kontuak hartu** = kargu hartu, “llamar la atención, pedir cuentas”. *Zu ez zara nor niri kontu hartzeko.*
- **larrua jo, larrutan egin** = harreman sexuala izan.
- **larrutik pagatu** = “pagar a precio de oro”. *Larrutik pagatuta ekarri genituen txitxardinak.*
- **lausoa egin** = “nublarse la vista”. *Ez dakit zer pasatzen zaidan, oraintxe ere lausoa eegin zait bistan.*
- **lepo egon** = bete-bete eginda egon, goraino egon. *Plaza lepo zegoen.*
- **lepo: burua lehengo lepotik eduki** = norbait lehen bezala aritzen dela edo ez dela batere aldatu adierazteko. *Horrek orain ere lehengo lepotik burua.*
- **leporaino egon** = “estar hart@”. *Leporaino nago zure berriketekin.*
- **lepo: inoren lepotik bizi, jan** = “vivir, comer a expensas de otros”. *Hori majo bizi da aitaren lepotik.*
- **lepoa jokatu/egin** = “jugarse cualquier cosa”. *Lepoa jokatu nuke ezetz bihar etorri. / Lepoa egingo nuke hori ez dela horrela!*
- **libre egon, izan, eduki** = oztoporik izan ez, baimenduta egon. *Libre geneukan nahi genuenean sartzeko/sartzea.*
- **loa galdu eragin** = lo egiten utzi ez. *Kafeak loa galdu eragin dit.*

- **lo seko egon/geratu/egin** = lo sakon egon... *Lo seko gelditu da minutu batean.*
- **logurak erreta egon** = “estar muert@ de sueño”.
- **loka egon** = kili-kolo egon. *Hagin bat loka-loka daukat.*
- **mara-mara negarrez** = negar baten.
- **maratila: ate(rik) adina maratila eduki** = denerako erantzuna, soluzioa, tranpa guztiak jakin.
- **marka izan, bota** = handia, gogorra izan, bota. *Marka da gero beti berandu ibili beharra. / Marka da mutil horri gertatu zaiona.*
- **mela-mela eginda** = blai-blai eginda, albainu siku barik, tximu eginda. */ Egin zuen euri zaparradarekin mela-mela eginda gelditu zen.*
- **mende hartu** = zerbaitek norbait gainditu, menderatu. *Mende hartzen gintuen gu lanak.*
- **mendia hartu** = ohitu.
- **modu onean** = merke, prezio onean. *Arropa modu onean ikusi dugu.*
- **mortalak egin** = kristorenak egin. *Mortalak egin genituen Basauriko jaietan.*
- **mozolo-mozolo egon** = “estar como un tonto/una tonta”. *Arratsalde guztia haren telefonoaren zain pasatu dut mozolo-mozolo.*
- **muturrez aurrera jausi/joan** = “caerse de bruces”.
- **nagiak atera** = “desperzarse estirando los brazos”.
- **nahikoa lan** = zerbait ez dela erraza izango adierazten duen esapidea. *Nahikoa lan izango du aurten aprobatzen. / Jon afarira etorriko da? –Nahiko lan.*
- **nahikoa eta lar/gehiegia** = “más que suficiente”. *Isildu zaitez, nahikoa eta gehiegia daukagu horrekin.*
- **negar bate(a)n egon/etorri...** = negar handiak eginez.
- **negarrari eman** = “echarse a llorar”. *Entzunaz batera negarrari eman zion.*
- **neure artean** = “para mí”. *Neure artean esan nuen: hemen zeozer arraroa gertatzen da, bada.*
- **noiz baino noiz –ko** = *Beti leihotik begira noiz baino noiz azalduko. (= noiz azalduko) / Baina ez zitzaidan batere gustatu horren harri-jasotzea: noiz baino noiz harriak azpian harrapatuko beldurrak egon nintzen.*
- **nora edo hara** = “a algún sitio”.
- **non denik ere ez** = “ni rastro”. *Euritakoa galdu zitzaidan. Non denik ere ez, beste bat erosi beharko dut.*
- **nondik edo handik** = “de algún sitio”. *Nondik edo handik lortu du nire telefonoa.*
- **nondik nora** = “por dónde, de dónde”. *Nondik nora ote dabiltza gure behiak? / Nondik nora ote darabil horrek hainbeste diru?*
- **nondik norako** = “de qué origen”. *Nondik norakoak ziren zuekin zebiltzan mutilak?*
- **odol hotzean** = “a sangre fría”. *Zazpi lagun hil zituen odol hotzean.*
- **odolbakoia izan** = motela edo ganora gutxikoa izan.
- **ohea jantzi** = oheko izarak aldatu edota ohean izara garbiak ipini.
- **oilo-ipurdia egin** = “ponerse la piel de gallina”.
- **oraintxe eta oraintxe ere** = “aún hoy en día”. *Hori oraintxe eta oraintxe ere pasatzen da.*
- **okerreko samatik joan** = kontrako eztarritik joan, “atragantarse”.
- **okerrera jo zerbaitek** = “evolucionar desfavorablemente”. *Gaixoak azkeneko egunetan okerrera jo du.*
- **on: onenak emanda egon** = sasoirik onena pasatua izan. *Praka horiek ere onenak emanda daude.*
- **onera etorri** = “recuperar la normalidad después de un mareo, nerviosismo, etc”. *Ondoeza egin eta ordu erdian ez zen bere onera etorri.*
- **onetik atera** = pazientzia galdu eragin. *Ume hauek neure onetik ateratzen naute.*
- **onean (onez onean) konpondu...** = “a buenas”. *Onez onean egiozu berba eta ikusiko duzu nola nahiko duen.*
- **ondo esan** = ondo tratatu, goxo hitz egin. *Izekoari ondo-ondo esaiozu eta emango dizu paga.*
- **piper egin** = “hacer pira”. *Askotan egiten dugu piper.*
- **piperrik ere ez** = batere ez. *Hari ez dio piperrik ere inporta besteek zer pentsatzen duten.*
- **plantak egin** = “hacer como que”.
- **polita pasatu** = “menuda la que (nos) ha pasado”. *Polita pasatu zitzraigun Portugalen.*
- **polito ematen dizu!** = lelo moduan erabiltzen da kritika moduan. *Polito ematen dio hari, umeak etxean utzita hara eta ona ibiltzea. / Hondartzara zoaz ala? Polito ematen dizu neu barik joatea.*
- **porru eginda** = leher eginda.
- **postura egin** = apostar.
- **praka: ez sartu inoren praketan** = “no te metas donde no te llaman”.

- **praketan kabitu ezinik (ezinda)** = pozez zorutzen. Batzuetan harrokeria puntu bat adierazten du. *Semeak karrera irabazi duela-eta praketan kabitu ezinda zegoen.*
- **saltzeko eduki ez** = zerbait edo norbait estimatu izan. *Ez pentsatu anaia saltzeko daukanik.*
- **santu egon ez** = oso ondo egon ez. *Gaur ez dago eguraldi santu-santua.*
- **sartu-irten bat egin** = bisita laburra egin. *Izekoren etxera sartu-irten bat egin.*
- **seko: lo seko egon** = “estar dormido profundamente”.
- **sekula horrelakorik!** = “¡habrase visto cosa semejante!” *Sartzen naiz etxera eta dena saguz beterik. Sekula horrelakorik!*
- **senetik irten, atera** = bere onetik irten, atera.
- **senera etorri** = bere onera etorri.
- **sesioan ibili (teman ibili)** = demandan, eztabaidan. *Beti sesioan ibiltzen dira andre-gizonak.*
- **siku ibili, egon** = “estar estreñid@”. *Uda ezkeru oso siku nabil.*
- **sinesteak ere lanak ditu!** = ¡cuesta creer!
- **tripak jaten egon** = oso urduri; arduratuta, zerbaiten edo norbaiten kezkatuta egon. *Tripak jaten egon naiz gau guztian, ezer pasatu ote zaizun pentsatzen.*
- **tripa-zorriak eduki** = gose izan.
- **trumoiak jo** = “tronar”. *Bart trumoiak jo du baina ez du euririk egin.*
- **txahal: bosgarren txahala izan** = behiak lau erro izaten ditu. Bost txahal baditu, bosgarrena goseak. Zerbait banatu eta norbait ezer gabe geratzen denean esaten da, edo norbait sobran dagoenean. *Zer, bosgarren txahalaren moduan ni ala?*
- **txakur: han ere txakurrak ortozik** = han ere gauzak hemengo antzera. *Alemaniarra joan zen, baina han ere txakurrak ortozik.* (han ere babak lekatik).
- **txakur jokatu** = zitalkeriaz eta gogorkeriaz jokatu. *Zuzendari hark txakur jokatu zuen langileekin.*
- **txakurraren putza!, txakurraren bibolinak!** = bai, zera!
- **txakur txikirik ere ez** = dirurik ez. *Guk garai hartan ez geneukan txakur txikirik ere.*
- **txakur zaharra izan** = “ser perro viejo”. *Retegi txakur zaharra da.* (atun zaharra).
- **txapela buruan eta ibili munduan**
- **txarrean** = “a malas”. *Ni onean ona naiz baina txarrean oso txarra.*
- **txiki-txiki egin** = “hacer picadillo”. *Liburua galtzen badidazu, txiki-txiki egingo zaitut.*
- **txinpartak darizkiola** = oso haserre.
- **txitak beste jan** = oso gutxi jan.
- **txokatuta egon** = harrituta egon. *Txokatuta nago zelan ez duen dear egiten.*
- **txortan egin, txorta jo** = larrua jo.
- **ura legez** = ondo, erraz. *Ura legez egiten du ingelesez. / Ikasgai horiek nik ura legez dakizkit.*
- **urak hartu** = “encoger al lavar”. *Jertsea zeharo nanotu zitzaidan garbigailuan sartu eta urak hartuta.*
- **urlia eta berendia** = “fulano y mengano”.
- **urrun barik** = gutxi gorabehera, hurbil. *Honezkeru hamarrek izango dira urrun barik. / Horrek berrogei urte bai, urrun barik.*
- **urteak joan (eta) urteak etorri** = urteak pasatu arren. *Urteak joan eta urteak etorri, ez da aurrerapiderik ikusten.*
- **ziria sartu** = gezurra sinestarazi, adarra jo. *Ziri ederra sartu die askori kontu horrekin.*
- **zirt edo zart egin** = erabaki bat azkar hartu. *Azkenean behintzat, zirt edo zart egin behar zela eta, horixe egin genuen.*
- **zorutzen egon** = oso pozik egon. *Zoratzen daude alabatxoarekin.*
- **zortzi: gaur zortzi** = “dentro de o hace una semana”. *Gaur zortzi da partida.*
- **zotz egin** = “echar a suertes”.
- **zotzik albora egin ez** = kolpe zorrikeria jo ez, kolpe gurutzekorik jo ez.
- **zur eta lur** = harrituta. *Zur eta lur egin da ama.*
- **zuritu, bere burua zuritu** = “justificar(se)”. *Horrekin bere burua zuritu nahi izan du.*

EBALUAZIOA

Probaren deskribapena, zuzenketa irizpideak eta probari buruzko gainerako informazioa Donostiako eskola honetako web orrian, www.eoidonheo.org eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Eskola Ofizialen webean, www.eoieuskadi.net orrietan eskura daiteke.

Euskara Gaitasuna Maila (C1)
Donostiako Hizkuntza Eskola Ofiziala
HEZKUNTZA, IKERKETA ETA UNIBERTSITATE SAILA